

***Kanpo harremanak- XII garren legegintzaldirako lan ildoak***

Eusko legebiltzarra 2020 azaroak 10, 14.30tan

Marian Elorza

Batzordeburu anderea, batzordekideak, arratsalde on,

Zuen aurrean agertzen naiz Kanpoan den euskal komunitatearentzako zuzendaria den Gorka Alvarezekin batera.

Hurrengoko minutuetan, legealdi honetan Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiatik sustatuko ditugun lan-ildoak azaltzeari ekingo diot.

Legealdi hau aurrekaririk gabeko testuinguru batean abiatu da. Orain arte ez dugu honelakorik ezagutu. Gaur egun, pandemiak zer nolako bilakaera izango duen datozen hilabeteetan, ezin esan. Ezin esan ezta, zenbat iraungo duen. Bai ordea testuinguru horrek gure lana baldintzatuko duela.

Gauzak horrela, eta batzorde honen aurrean, zintzoki eta gogotik gure ardurari ekingo diogula azpimarratu nahi dut. Euskadiren kanpo harremanak sustatu eta areagotzea da gure xedea, eta hortan diharduko dugu buru-belarri.

Nazioarteko testuingurua

COVID-19ak eragindako pandemia ez da hondamendi sanitario bat soilik. Gizakiengan, gizartean eta ekonomian kalte handiak eragingo dituen shock-a da. Nazioartean, pandemiak bere ondorioak ere izan ditu.

Nabarmenenak: mugak iragazgaitzago bihurtu dira edo itxi egin dira, eta nazioarteko mugikortasuna guztiz murriztu da.



Epe ertain-luzera, aurretik zeuden tentsioak areagotu egin dira. Protekzionismoaren alde dauden herrialdeen eta irekitzearen eta multilateralismo berrituaren alde dauden herrialdeen arteko etena handitu egin da. Nazioarteko ordena berria azaleratzen ari da. Atlantikoz-bestaldeko ardatz demokratiko liberl tradizionalaren aurrean, ardatz berriak igartzen hasi gara: Errusiaren eta Txinaren inguruan sortutako ardatz eurasiarra, edota Txina eta India nagusi diren Asia-Pazifikokoa. Txinaren eta Estatu Batuen arteko tentsioak gaiztotu dira, Europa munduko gobernantzan duen rola inguruko gogoetari aurre egitera behartuz.

Gure industria oinarrituta dagoen hornikuntzako kate konplexuen ahultasuna ere agerian utzi du pandemiak. Funtsezko ondasunak tokian bertan edo ingurunean produzitzeko beharraz jabetu gara. Sare horiek aztertu eta berrantolatu beharko dira.

La Unión Europea ha sufrido el zarpazo de la Covid-19. Si en un primer momento, la pandemia hizo que el edificio europeo se tambaleara, bien podría tornarse en un revulsivo del proceso de integración. Al fin y al cabo los padres fundadores ya anunciaron que Europa se forjaría en las crisis. Tras el “sálvese quien pueda inicial”, la crudeza del momento ha abierto paso a respuestas concertadas. La crisis va a desencadenar un paquete de estímulo a la recuperación sin precedente y, por primera vez, una emisión masiva de deuda mutualizada para financiarlo. Ha aflorado la demanda de dotar a las instituciones europeas de competencias en salud, se alzan voces demandando un “Social deal” y la instauración de un salario mínimo europeo.

La conectividad global ha propiciado la extensión del coronavirus a escala planetaria. Nunca antes había resultado tan evidente lo tremendamente interdependiente que es el mundo en que vivimos. En todo caso, y aunque resulte paradójico, si la globalización está a la base de la pandemia, también lo está de la solución. Ahora bien, la experiencia debiera propiciar una salida a la crisis justa y sostenible, anclada en una gobernanza multilateral



colaborativa. Y es que el eslabón más débil de la cadena marcará el ritmo de la recuperación.

Vamos a seguir viviendo en un mundo interconectado y global, en el que asistiremos a un reequilibrio entre lo local, las capacidades propias, y la aportación y capacidades que proceden del exterior.

Euskadi Basque Country nazioartekotzeko apustu estrategikoa

Irailaren 3ko inbestidura-ekitaldian Lehendakariak esan zuen bezala, Euskadin *herri gisa ditugun helburu guztiak sustatzen jarraituko dugu*. Pandemiak ez ditu zapuztu helburu estrategikoak. Ezta Euskadi Basque Country-ren nazioartekotzea areagotzeko helburua ere.

Hortaz, gure berezitasuna kanpora zabaltzeko eta euskal interesak sustatzeko asmoa berresten dugu. Europar Batasunaren eraikuntzan parte hartu nahi dugu, eta erronka globaletan lagundu.

Gobernantza europar eta global berritua eta maila anitzekoa beharrezkoa dela sinisten dugu. Eta bide horretan urratsak emateko lan egingo dugu.

Euskal Komunitate Globala osatzen jarraituko dugu eta lankidetzak-aliantzak eraikiko ditugu. Kanpoan lortuko duguna euskal gizartearen onurarako izango dela ziur gaudelako.

XII. legealdi honetan, Eusko Jaurlaritzaren kanpo-ekintza, inoiz baino gehiago, herri honen helburuen zerbitzura egongo da, gure ekonomia eta enplegua suspertzeko, pandemia gainditzeko eta garapen jasangarria lortzeko. Gizarte gisa ekin behar diegun trantsizioen zerbitzura ere ipiniko dugu:

- gizarte eta osasun-trantsizioa.
- energia eta ingurumen-trantsizioa



- eta trantsizio teknologiko-digitala.

Lehendakariak laugarren eraldaketa bat iragarri zuen inbestidura saio hartan: gure autogobernuaren eguneratzea. Honek, Euskadi nazioartean egoteari eta proiektatzeari bultzada eman beharko lioke.

En 2014 aprobamos la Estrategia Marco de Internacionalización Euskadi Basque Country 2020, que actualizamos en 2018. Bajo este paraguas, hemos impulsado 2 Planes consecutivos de acción exterior, a los que se han unido estrategias sectoriales.

En el bienio 2018-19, el Gobierno vasco ha desarrollado 1649 actuaciones con proyección exterior, a menudo en colaboración con los agentes del ecosistema vasco de internacionalización. Este impulso ha redundado en un crecimiento de nuestra inserción exterior. Concretamente la radiografía de la internacionalización de Euskadi de 2019, muestra un claro avance en 22 de sus 27 indicadores respecto a 2016.

- Se ha incrementado de 43 a 50 el número de consulados en Euskadi
- Ha crecido el número de acuerdos y redes internacionales con participación directa del Gobierno vasco (453 a 471 acuerdos; 75 a 122 redes).
- Ha crecido el peso relativo de las exportaciones vascas en el PIB (31,9%-33,2%).
- Se han ampliado de 15 a 18 los países con cátedras y lectorados de euskera.
- 0,04% de los estudiantes que en el mundo realizan estudios universitarios en el extranjero, son vascos, mientras nuestro peso en la población mundial es del 0,03%.

Hemos recorrido una parte del camino, pero aún queda mucho por hacer.



En esta legislatura, renovaremos la Estrategia marco de internacionalización Euskadi Basque Country con el horizonte puesto en 2025. Y, más que nunca, la filosofía de *auzolana* va a ser la clave para su definición y puesta en marcha.

La nueva estrategia Euskadi Basque Country mantendrá su enfoque multisectorial y combinará líneas de trabajo a medio-largo plazo, con otras dirigidas a atender las apremiantes necesidades del momento. Conjugará líneas de trabajo abordadas en Estrategias pasadas, con la atención a los nuevos retos. Así, junto a las ya tradicionales agendas institucional, económica, cultural ó de desarrollo, las agendas de salud, climática y digital están llamadas a ganar protagonismo.

Estrategia honen lan-lerro nagusienetako bat “Euskadi Basque Country” herri-markaren promozioa izango da. Aurreko urteetan emandako urratsak sendotze aldera eta jauzi kualitatibo bat egiteko, markaren sustapenerako plan operatiboa definitu eta gauzatuko dugu. Plan horrek, marka indartzeko ekimen zehatzak identifikatuko ditu, azkenaldian martxan jarritakoak barne (EBC eguna eta EBC laguna esaterako). Planak lehentasunak ezarriko ditu eta auzolanerako aukerak aztertuko.

Herri-markak ikuspegi estrategikotik aztertuta, herriaren kanpo-proiektzioa indartzeko oinarrizko elementuak dira. Nazioartekotzeko orduan, herriek dituzten indarguneak modu eraginkorrez ustiatzeko aukera ematen du markak. Eta nazioartean aritzen diren eragile guztiei lankidetzarako aukera aparta eskaintzen die.

Agerikoa da legealdi honetan gure egiteko moduak aldatuko direla. Martxotik hona aurreikusita genituen zenbait jarduera, bideraezinak gertatu dira. Aurrez aurreko harremanek, harreman telematikoei eman diete bidea. Ikusteke dago *Zoomplomazia* deitzen hasia den hori, errotuko den edota behin-behineko kontua izango den. Edozein kasutan, mugikortasuna eta



jarduera presentzialak ezinezko diren artean, teknologiaz baliatuko gara gure zeregina betetzeko.

2021an Euskadiren Europar Batasuneko Ordezkaritza inauguratu zenetik 25 urte beteko dira. Esperientziak erakutsi digu, gure interesak jokoan dauden guneetan ordezkari bat izatea inbertsioa dela. Horrexegatik, Euskadiren Ordezkaritzen atzerriko sarea osatzeko unea heldu dela uste dugu. Lehen tasun geografikoak kontuan hartuz eta foku berezia Europan ipiniz, urteko ordezkari bat zabaltzeko asmoa dugu.

Europa, nuestra prioridad

El Consejo Europeo aprobó el 21 de julio pasado el Fondo de Recuperación Next Generation EU de 750.000 millones de euros. Sumado a la propuesta de Marco Financiero Plurianual 2021-2027, arroja la extraordinaria cifra de 1,824 billones de euros, un 5% del PIB de la UE.

Estos fondos habrán de servir para mitigar el grave impacto social, económico y sanitario de la pandemia, financiar la recuperación y modernización del modelo productivo europeo y abordar las ineludibles transiciones verde y digital.

Euskadi va a elaborar su Programa de recuperación y resiliencia *Euskadi Next*. Una prioridad para el Gobierno vasco y para la Secretaría General de Acción Exterior. Nuestro rol será el de captar y aportar información relevante y contrastada sobre un instrumento aún en construcción, y ofrecer asesoramiento y perspectiva europea para coadyuvar en el proceso.

Seguiremos asesorando y acompañando la inserción de agentes vascos en las iniciativas y programas de la UE. Constituyen no sólo un cauce de financiación, sino una vía de conexión con nodos de innovación y excelencia. En este capítulo destacan el nuevo programa Horizonte Europa, el European Green Deal, la construcción del espacio digital europeo o las industrias



culturales y creativas. Asimismo, estaremos atentos a la inserción del tejido productivo vasco en los ecosistemas industriales europeos.

Tras haber postergado su lanzamiento previsto para el 9 de mayo pasado, en próximas fechas debiera comenzar la Conferencia sobre el Futuro de Europa. Una cita crucial para esta legislatura. Nuestra idea de Europa es la de una Unión prospera y justa que, en el plano exterior, abogue por un multilateralismo renovado, y que a nivel interno, persiga la cohesión económica, social y territorial basándose en un modelo de gobernanza multinivel efectiva.

No sería concebible un debate sobre el futuro de la UE que soslaye una reflexión honesta sobre cómo integrar a realidades nacionales y gobiernos subestatales con competencias políticas y legislativas en su gobernanza. El Gobierno vasco va a trabajar para contribuir al proceso de reflexión.

En este empeño no partimos de cero. Potenciaremos el trabajo iniciado en el foro de colaboración R-LEG y la defensa conjunta, como base de reflexión, de la figura de Región Asociada teorizada por Alain Lammassoure. Esta figura recoge, en buena medida, los postulados básicos de la gobernanza multinivel.

Transcurridos 10 años desde su última convocatoria, insistiremos en reactivar la Comisión bilateral Estado-CAE para acción exterior y asuntos europeos. Urge ensanchar la participación directa de Euskadi en aquellos Consejos de la Unión donde se dilucidan cuestiones que afectan a aspectos nucleares de nuestro autogobierno. Urge igualmente abordar la participación en otras instituciones como OCDE.

En el plano bilateral, intensificaremos las relaciones privilegiadas que hemos desarrollado con países como Baviera, Flandes y Gales.

Igualmente prevemos institucionalizar un marco de colaboración con el Consejo General de Córcega. Y miraremos a los países nórdicos para ampliar



la red de socios estratégicos allí, y asentar la incipiente relación con Nordic Council.

Mugaz haraindiko politikak gure egunerokoan tarte inportante bat hartuko du.

2021. urtean 10 urte beteko dira Akitania-Euskadi —gaur egun, Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa— Lurralde Lankidetzarako Europako Taldea eratu zenetik. Lehen urte horien balantzea oso positiboa da. Euroeskualdeak Pirinioen bi aldeen arteko lankidetzaz sustatu du. Aurreko legealdian, 3,3 miloi euro bideratu ditugu mugazgandiko proiektuak eta lankidetzaz estrategikoak laguntzeko.

Une honetan eta 2022. urtera arte Euskal Autonomia Erkidegoaren esku dago Euroeskualdearen presidentzia. Gure erantzukizunen artean, 2021-2027 Plan Estrategiko berria prestatzea dago. Dauden premietara eta erronketara egokitutako ibilbide-orria.

Euroeskualdeko eta mugazgandiko esparruko eragileen arteko gobernantza berri bat lortzea izango dugu helburu. Ahaleginak eta lehentasunak bateratuko dituen gobernantza parte-hartzailea.

Eragile horien artean, Euskal Hirigune Elkargoa, Iparraldeko mankomunitatea, azpimarratzekoa da. 2019az geroztik, akordio batek lotzen gaitu, eta hizkuntza-politikaren edota mugikortasunaren esparruetan lehen urratsak ematen hasiak gaude. Gure helburua lankidetzaz horretan sakontzea da.

Legealdi honetan eskualdeen-arteko lankidetzaz sustatuko dugu, sare garrantzitsuetan gidaritzaz geure gain hartuz.

Esaterako, Arku Atlantikoaren Batzordeko presidentzia hartu berri dugu datozen bi urteetarako. Epe horretan, Makroeskualde atlantiko bat sortzeko



proiektua landuko dugu. Kostalde atlantikoaren beharrak Europar Batasunaren agendan txertatzeko.

2021etik aurrera, Pirinioetako Lan Erkidegoaren presidentzia ere hartuko dugu. Feder-POCTEFA (2021-2027) programa operatiboa aurkezteko unea izango da.

Europari buruzko atala Brexit-aren inguruko aipamena eginez amaituko dut. Aste gutxi batzuk baino ez dira falta transizioaldia amaitzeko. Oraindik ez dakigu zein arau izango dituen Europar Batasunaren eta Erresuma Batuen arteko erlazioak urtariletik aurrera. Gauzak horrela, Brexitaren Jarraipen Batzordean lanean jarraituko dugu. Testuinguru berrirako Euskadiko erakundeak, eragile pribatuak eta herritarrak ahalik eta ondoen prestatuta egon gaitezten.

Relaciones exteriores de Euskadi

La proyección exterior de Euskadi requiere no sólo tejer alianzas ad-intra, entre actores vascos, sino también ad-extra, con actores internacionales. Necesitamos estar conectados con los principales centros de decisión, pensamiento y nodos de innovación a nivel mundial. Para ello, en esta legislatura vamos a reforzar y ampliar nuestras relaciones bilaterales y alianzas.

La agenda exterior vasca estará estrechamente ligada a los compromisos globales, particularmente a la Agenda 2030 de Naciones Unidas. Una actitud constructiva, propositiva y proactiva es clave para hacer oír nuestra voz en los debates globales. Concretamente, apostamos por mantener una presencia activa en los principales citas de la agenda multilateral: High Level Political Forum, que cada año analiza los progresos en la implementación de la Agenda 2030; las Conferencia de las Partes sobre cambio climático o el encuentro CSW sobre igualdad de género. En este objetivo pretendemos involucrar a distintos agentes vascos con conocimiento experto que aportar.



En paralelo, no hemos de perder de vista a las instituciones que componen el Sistema Iberoamericano. La Alianza para la movilidad que promueve la Secretaría General Iberoamericana, o el refuerzo de los sistemas de formación profesional en la Alianza del Pacífico que patrocina la Organización de Estados Iberoamericanos, ofrecen una clara oportunidad de colaboración en los ámbitos educativo y cultural. Por ello vamos a renovar los Memorandum de entendimiento con ambas instituciones internacionales.

Mantenemos el enfoque de priorizar un número reducido de países que aglutinen nuestros intereses multisectoriales. Durante la definición de la Estrategia marco de internacionalización, procederemos a adaptar al nuevo contexto el listado de países prioritarios. Prestaremos especial atención a aquellos países que mejor están gestionando la pandemia y aquellos que se encuentran en la vanguardia de las transiciones de abordar.

A continuación, procederemos a intensificar las relaciones con instituciones y “decision-makers” de los Países Prioritarios. Comenzaremos con sus representaciones diplomáticas en el Estado y, en cuanto la situación epidemiológica lo permita, potenciaremos las visitas de sus embajadores/as a Euskadi.

Halaber, lehentasunezko herrialdeetan erakundeekiko harreman-bideak jorratuko ditugu, hango eta hemengo eragileen lotura landuko dugu, eta gure interesak bultzatzen ahaleginduko gara. Energia eta ingurumenaren, teknologia eta digitalaren, gizarte eta osasunaren arloko eraldaketak harreman-fluxu horren erdigunean egongo dira. Helburu horietan mamituko da batez ere Euskadiren kanpoko ordezkartzen lana.

Nazioarteko mugikortasuna berreskuratuz ahala, Learning Tour ekimenari ekingo diogu berriro. Beren jatorrizko herrialdeetan goi-ardurak dituzten pertsonen Euskadi erakusten jarraituko dugu.



Aurreko legegintzaldian ehundu dugun bazkide estrategikoen sarea indartuko dugu. Zehazki, Chie eta Fukushimako prefektura japoniarrekin, Txinako Jianguo probintziarekin eta Hego-Korearekin elkarlanean aritzeko bideak irekiko ditugu.

Lankidetzeta-sareak funtsezko tresnak dira ezagutza erakartzeko eta gure indarguneak ezagutarazteko. Eusko Jaurlaritza 122 saretan dabil, Europan zein nazioartean. Datozen urteetarako erronka zera izango dugu: sare garrantzitsuenen gobernantzan erantzukizuna gureganatzea.

Aliantza eta harreman horiek guztiek Euskadi Basque Country-ren errealitatea ezagutarazteko balio behar ligukete. Era berean, nazioartekotzeko euskal ekosistemari kanpo-proiektzioa emateko, aukerak identifikatzeko eta euskal eragileei aholkularitza eta laguntza emateko beren proiektuak gauzatu aldera.

Comunidad vasca en el exterior

Esta será una legislatura importante para la Comunidad Vasca en el Exterior. Un punto de inflexión en el modelo de relación del Gobierno con los vascos y las vascas del exterior. Seguiremos impulsando las comunidades tradicionales organizadas en torno a las Euskal Etxeak. Y abordaremos el reto de identificar y mantener un contacto constante con la nueva realidad migrante vasca. Una migración fundamentalmente *golondrina*, de ida y vuelta.

El reto es atender y dar respuesta a la Comunidad Vasca presente en los cinco continentes. Una comunidad plural y diversa, con distintas inquietudes y necesidades.

El contexto de pandemia está teniendo consecuencias en la Comunidad Vasca en el Exterior. Los cambios en la manera de relacionarse se han acelerado y, con ellos, la apropiación de las nuevas tecnologías. La imposibilidad de



encuentros presenciales ha dado paso a propuestas inéditas como semanas vascas virtuales, un Día de la diáspora en formato híbrido o un Buenos Aires Celebra el País Vasco emitido en redes sociales. Fórmulas nuevas para seguir creando comunidad que abren un abanico de posibilidades. En todo caso, numerosas actividades, algunas tan conocidas como Jaialdi o la Semana Nacional Vasca 2020 han sido suspendidas.

El Congreso Mundial de Colectividades Vascas en el Exterior “*Saregintzan*”, celebrado en Bilbao hace un año, puso sobre la mesa reflexiones importantes sobre el cambio de paradigma que se avecinaba. La encuesta ENARA, contestada por más de 3.000 personas, arrojó datos sobre la realidad y necesidades de la “*nueva migración vasca*”.

Hablar de nuevo paradigma es redefinir el rol que debe cumplir el Gobierno Vasco en su relación con las comunidades en el exterior. Es preciso, como recoge el plan cuatrienal 2020-2023, plantear una política diaspórica integral, en clave de país, en la que el papel de las instituciones públicas evolucione de “implementador” de medidas y programas, a “facilitador”. Un reto que habremos de abordar en esta legislatura.

Asimismo, vamos a impulsar la articulación de una auténtica Comunidad Vasca Global, que conecte a las vascas y vascos allí donde estén. No es empresa fácil, pero merece la pena. En el pasado hemos dado algunos pasos, con resultados discretos. Es preciso ir más allá. Para ello trabajaremos con distintos Departamentos del Gobierno Vasco, con otras instituciones y entidades y con las personas que integran la Comunidad Vasca en el Exterior. Juntos haremos un diagnóstico de necesidades y definiremos utilidades de interés para desarrollar proyectos o estrechar relaciones entre personas ubicadas en distintos rincones del mundo.



25 herrialdetako 193 Euskal Etxetan banatuta dauden euskaldunak biltzen dituen sare fisiko erraldoi bat dugu. Batez ere Ameriketara topatzen ditugu euskal etxeak, gehienak hantxe sustraiak bota zituzten euskaldunen ondorengoek osatuta. Europan, hainbat belaunalditako pertsonez osatutako zentroak daude. Asian eta Ozeanian komunitateak txikiagoak dira, eta bertara emigratu zuten euskaldunak eta euskal kulturara hurbiltzen direnak batzen dituzte.

Euskal Etxeen sare tradizional hori guztia sustatzen jarraituko dugu. Bertan antolatutako jardueri babesa emanez, prestakuntza-programak antolatuz, eta komunitateko gazteei zuzendutako ekimenak sustatuz.

Gaztemundu programa hobetuko dugu, parte hartzen duten gazteek herri hau hobeto ezagutu dezaten eta Euskal Etxeentzako lagungarriak diren diziplinetan sakondu dezaten. 1996. urteaz geroztik 900 gazte baino gehiagok parte hartu dute Gaztemundun.

Programa berriak prestatuko ditugu ere, adibidez Dantza Munduan izenekoa. Izan ere, Euskal Etxeentzako dantza tresna garrantzitsua da gazteak erakartzeko eta gure kultura erakusteko.

Komunitateko pertsona ahulenei zuzendutako muturreko premiako laguntza-programa eguneratuko dugu, errealitate soziosanitario berrietara egokitzeke. Eta Eusko Jaurlaritzaren hainbat zerbitzurekin zeharkako lana indartuko dugu, etxera itzultzea erabakitzen duten kanpoko euskaldunei laguntzeko.

Diasporizatu! asmatutako hitza den arren esanahiz betea dago. Gure beste jardunbide bat izendatzeko balio du. Euskal gizartean, gure errealitate migratzailea hedatzera zuzendua dagoena. Horretarako, urtero, irailaren 8an, Euskal Diasporaren egunaren ospakizuna indartuko dugu, Euskal Diasporaren Artxiboa osatuko dugu eta Unibertsitateekin zein eskolekin lan egingo dugu.



Batzordeburu anderea, batzordekideak

Ziurgabetasunez beteriko garaia dugu aurretik. Pandemiaren bilakaerak gure zeregina baldintzatuko du. Eta momentuan momentuko egoerara egokitu beharko dugu gure zeregina.

Bide horretan ez galtzeko, iparra argi izatea ezinbestekoa da. Baita bidelagunak izatea ere.

Norabide horren osagai nagusiak, azaldu berri dizkizuet.

Eta, bide horretan, zuen laguntza izatea espero dut.

Eskerrik asko!